

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### URKABUSTAIZKO UDALA

**Etxebizitzak, monumentu gisa kalifikatutako eraikinak eta eraikinen apaingarriak birgaitzeko diru-laguntzak arautzen dituen ordenantza indargabetzeko hasierako onarpena. Ordenantza hori ALHAOn argitaratu zen 1997ko urtarrilaren 29an, 11. zenbakian**

Udalbatzak, 2020ko irailaren 23an egindako ohiko bilkuran, hasieran onetsi zuen etxebizitzak, monumentu gisa kalifikatutako eraikinak eta eraikinen apaingarriak birgaitzeko diru-laguntzak arautzen dituen ordenantza indargabetzea. Iragartzen da erabaki hori, bere aurrekari guztiekin, jendaurrean egongo dela udaletxeko idazkaritzan, hogeita hamar egun baliioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Interesdunek espedientea aztertu eta nahi dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, ordenantza indargabetzeko erabakia behin betiko hartu dela ulertuko da.

Izarra, 2020ko irailaren 23a

*Alkatea*

*XABIER ÁLVAREZ DE ARCAYA*